

BK02/07 AKTA

2007KO IRAILAREN 13AN BATZORDE KUDEATZAILEAK EGINDAKO
BATZARRA

Mendexan, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta zazpiko irailaren hamahiruan, goizeko bederatzietan, behean aipatzen diren Mendexako Batzorde Kudeatzaileko kideak bildu dira, Pedro Agustin Juaristi Leniz presidente jauna buru dela.

Bertaratuak:

Batzordekideak: Aizbea Atela Uriarte
Txomin Aurrekoetxea Iza
Iñigo Iturrate Ibarra
Kerman Meaurio Arrate
Jon Sanchez Ibarluzea
Izartza Zorrozueta Uribe
Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez

Batzordeko presidente jaunak 2568/1986 Errege Dekretuaren 38 artikuluan araututako ez-ohiko batzarrari hasiera eman dio.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- UDALBATZAREN OHIZKO BATZARREN PERIODIKOTASUNA.- 7/85 Legeak bere 46.2 artikuluan xedatzen du Udalbatza ohizko batzarrean hiru hilebetetik behin batuko dela gutxienez.

Horren aurrean, Batzorde Kudeatzaileak aho batez erabaki du:

Hilero egitea Batzorde Kudeatzailearen ohizko batzarrak, eguna eta ordua aurrerantzean zehaztuko direlarik.

2.- PRESIDENTE-ORDEAREN IZENDAPENA.- Udalbatzaren ezagutzarako azaldu da alkate jaunak, 2007ko irailaren 13ko Presidente-Dekretuaren bitartez, Kerman Meaurio Arrate batzordekide jauna izendatu duela presidente-orde bezala.

3.- UDAL DIRUEN GORDAILUZAINA IZENDATZEA.- Udalbatzak aho batez erabaki du Aizbea Atela Uriarte batzordekide andrea udal gordailuzain izendatzea.

4.- GESTIORAKO ARLO EZBERDINEN BANAKETA.- Gorporazioko kide bakoitzak arlo zehatz baten ardura hartzeko helburuarekin, aho batez erabaki da udal gestiorako arlo ezberdinen banaketa zinegotzien artean, ondorengo eran:

- Gizarte Ongizate arloa, Iñigo Iturrate Ibarra j.
- Hirigintza arloa, Pedro A. Juaristi Leniz j. eta Jon Sanchez Ibarluzea j.

- Kultura eta euskara arloa, Izartza Zorrozueta Uribe a.
- Nekazal arloa, Txomin Aurrekoetxea Iza j.
- Hondartza arloa, Kerman Meaurio Arrate j.
- Ogasun arloa, Aizbea Atela Uriarte a.

5.- LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOKO GOBERNU BATZORDERAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.- Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko Estatutuen 8. artikularen arabera, Mankomunazgoko Gobernu Batzorderako udal bakoitzaren ordezkariak, alkate-udalburua eta udalak bere gorpazio-kideen artean izendatutako ordezkari bat izan behar direla, jakinarazi du idazkariak. Era berean, ordezko bat izendatu behar da.

Aurrekoa ikusirik, udalbatzak aho batez erabaki du:

Pedro Agustin Juaristi Leniz presidente jauna eta Kerman Meaurio Arrate batzordekide jauna izendatzea Mendexako Udaleko ordezkari Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko Gobernu Batzorderako eta Jon Sanchez Ibarluzea batzordekide jauna izendatzea ordezko.”

6.- LEARRI, S.A.RAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.- Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) “Learri, S.A.” sozietateko administrazio kontseilurako, eta beste batzuren artean, udal honetako Batzorde Kudeatzaileko presidentea den Pedro Agustin Juaristi Leniz jauna eta batzordekidea den Jon Sanchez Ibarluzea jauna izendatzea.

2) Presidentea den Pedro Agustin Juaristi Leniz jauna (NAN 14597953Z) ahalmentzea Mendexako Udalaren izenean karguak onar ditzan eta beharrezko ikusten dituen ordezkari legalak –pertsona fisikoak- izenda dezan. Baitere ahalmentzea aipatu alkatea, bai notaritzan bai bestelako edozein erakunde publiko edo pribatueta agertaraziz, egoki diren gestioak egin ditzan burututako aldaketak beharrezko erregistroetan inskribatuak izan arte.

7.- LEA ARTIBAIKO AMANKOMUNAZGOKO BATZAR NAGUSIRAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA.- Lea Artibaiko Amankomunazgoko Estatutoen 12 eta 13. artikuluetan xedatuaren arabera, Lea Artibaiko Amankomunazgoko Batzar Nagusirako ordezkaria izendatu beharraren berri eman da.

Hori dela eta, Udalbatzak, Udal Batzorde Kudeatzaileko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botuaz eta bertaratuen ahobatezkotasunarekin, erabaki du:

Lea Artibaiko Amankomunazgoko Batzar Nagusiko kide izendatzea Pedro Agustin Juaristi Leniz, Mendexako udalerriko ordezkari bezala.

8.- LEA ARTIBAI LANDA GARAPEN ALKARTERAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA.- Udalbatzak aho batez erabaki du Txomin Aurrekoetxea Iza jauna izendatzea Mendexako Udaleko ordezkari Lea Artibaiko Landa Garapen Alkartean.

9.- ERRALDE, DURANGOKO HILTEGIA, S.L.RAKO UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEA.- Udalbatzak aho batez erabaki du:

“Erralde, Durangoko Hiltegia, S.L.” sozietateko administrazio kontseilurako, eta beste batzuren artean, udal honetako Batzorde Kudeatzaileko kidea den Txomin Aurrekoetxea Iza jauna izendatzea.

10.- UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATERAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA.- Udalbatzak aho batez erabaki du:

Izartza Zorrozua Uribe batzordekide andrea izendatzea Mendexako Udaleko ordezkari UEMA-Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen batzar nagusirako.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du goizeko bederatziak eta hamazortzi minutu direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.